



# Arnasguneak: prebentziotik garapenera

2018ko UZTAILEAN

KONTSEILUA, UEMA, UEU, GAINDEGIA

## KOKAPENA

Aski hedatu den ideia da lurgune euskaldunak edo arnasmune geografikoak berebiziko garrantzia dutela euskararen normalizazio prozesuan. Euskaldun kopuru handia duten herriak eta auzoak dira, euskaraz normaltasunez eta naturaltasunez bizi direnak, eta normalizatutako edozein hizkuntzak bete beharko lituzkeen funtzioak betetzen ditu euskarak, beren egunerokoan. Mendekotasun egoeran dago euskara, eta arnasmuneak behar ditu, egungoari eusteko eta esparru berriak irabazteko. Horregatik, lan ildo oso bat abiatu genuen, 2013an, udalerri euskaldunak bizirik mantentzeko, soziolinguistikoki diren modukoak izaten jarrai dezaten.

Lurraldea eta Hizkuntza (LUHI) jardunaldietako hiru edizioek ondorio argi bat utzi badute, hizkuntza-politikek duten zeharkakotasunarena izan da. Alegia, euskararen normalizazio prozesuan, kasu askotan, zeregin edo ondorio nabarmenagoak dituztela hizkuntza-politikako sailatik aparteko beste sailetatik egiten diren politika publikoek. Hain zuzen ere, LUHIko azkeneko edizioan argi ikusi zen, arnasmune gehienetan euskararen ezagutzak izaniko atzerakada, etxe berrien eraikuntzarekin eta herritar berrien etorrerarekin estuki lotzen zela. Lehen urrats gisa, herri erakundeen politiketan prebentzioaren ikuspegia txertatzeko ildoak landu dugu, garatzen duten ohiko jarduerak kalterik ez eragiteko gune euskaldunen euskarazko gizarte bizitzan eta kultur garapenean.

Orain, beste urrats bat aurrerago egin behar dela ikusi dugu, igaroz prebentzioaren ikuspegitik, lurgune euskaldunen eta arnasmuneen garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak proposatzera. Ere horiek sendotzean eta zabaltzean jokatzen baitugu normalizazio prozesu orokorraren arrakasta, hein handi batean. Horrela, aipatutako proposamena osatzeko prozedurari begira ondorengo helburua zehaztu genuen:


*Prozesu honetan helburua, lurgune euskaldunen garapen jasangarri baterako, aintzat hartu beharreko irizpideak eta oinarriak proposatzeko dituen dokumentua osatzea izango da. Horretarako, garapen horretan zeresana izan dezaketen alderdi/politika desberdinak aztertzea eta horien inguruko proposamenak mahai gaineratzea bilatuko da.*

Dokumentu hau beraz, ez dugu dokumentu itxi gisa ulertzen. Dokumentu irekia eta bizia izatea bilatzen dugu. Arnasmuneen garapen jasangarriaren inguruko eztabaidan ekarpen bat egingo duena eta, espero dezagun, ondorengo urteetako garapen bide horretan urratsak egiten joateko ideia baliagarriak eskainiko dituen. Eztabaidarako zabalik eskaintzen dugu, beraz, dokumentua, baina baita eztabaida zabaltzeko ere. Izan ere, euskararen normalizazioak ondorengo urteotan aurrera egingo baitu, ezinbestekoa izango baita arnasmuneen garapen jasangarria.

## ALDAGAIK ETA DIMENTSIOAK: LAN-MARKOAK

Aztergai izan daitezkeen alderdi desberdinak egoki identifikatu eta kokatzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu lanerako marko posible bat mahai gaineratzea. Horrela, ikuspegi integrala izateko marko egokia bat ere eskaintze aldera.

Hortaz, lurgune euskaldunen garapen jasangarria aztertzen hasita, 1992an Rio-ko Munduko Gailurrean mundura hedatu zen jasangarritasunaren kontzeptua definitzeko erabili ohi diren hiru planoak aintzat hartzea interesgarritzat jo da:



Hiru plano horien arteko intersekzioan, edo bestela esanda, orekan, kokatzen da jasangarritasuna. Ez dago ikuspegi horretatik oso urrun arnaguneen testuinguruan askotan aipatu izan den garapen sozio-kulturalaren eta sozio-ekonomikoaren ikuspegia. Esan genezake, bi eremu horiei, ekologiarena gehitzen diela. Aitzik, garapen jasangarriaren inguruko teorian, alderdi kulturalak ez du hainbesteko pisurik hartzen eta plano sozialaren baitan kokatzen da. Hizkuntza-normalizazioaz ari garelarik, berriz, garrantzitsua iruditzen zaigu plano kulturalari behar duen garrantzia ematea. Beraz, bi ikuspegi hibridazioa eginda, guk lurgune euskaldunen garapen jasangarritako ondorengo lan-markoa erabiltzea proposatu dugu:



Beste hitz batzuetan esanda beraz, lurgune euskaldunen garapen jasangarriak, garapen soziokulturala, garapen sozioekonomikoa eta garapen sozioekologikoa<sup>1</sup> orekatzea du eskakizun. Ulertuta, hiru horien oinarrian, jarduera edo harreman sozialak kokatzen direla eta ezin direla horietatik bereizi. Horrela, plano horietako baten batek huts eginez gero, garapen sistema bera desorekatuko litzateke luze gabe eta lehen arazoak azalduko liratekeela aurreikusi daiteke: arazo kulturalak, ekonomikoak, ekologikoak, sozialak,... edo dena delakoak.

<sup>1</sup> Sozioekologia, sozio-ekosistema edo giza ekosistema bezala ere izendatu izan da. Argibide gehiago dituzue Koldo Telleriak LUHIko lehen edizioan eginiko hitzaldia jasotzen duen argitalpenean: <http://www.gipuzkoa.eus/documents/882543/1172149/Lurraldea+eta+Hizkuntza+1.pdf/Oca0513d-1f77-491a-a495-86611cc71ddc> (29. Orrialdea)

## LANERAKO METODOLOGIA:

Orain arte esandakoak, nola gauzatu dira, ordea? Bada, aipatutako proposamenak biltzen eta xeheztzen joateko, ezagutza arlo desberdinetako adituen iritzia jaso nahi denez eta gaur gaurkoz gai horren inguruko informazioa mugatua denez, Delphi metodoa erabiltzea hobetsi genuen. Metodologia honek galdera txanda errepikakorren bidez aztergai baten inguruko adituen iritzi kolektiboa biltzea bilatzen du. Horrela, esparru desberdineko adituen artean sortu daitezkeen adostasunak identifikatzeko aukera emanez. Hona prozesuan parte hartu duten adituen zerrenda:

- |                       |                           |
|-----------------------|---------------------------|
| 1. Agirre, Lorea      | 8. Goikoetxea, Garikoitz  |
| 2. Aranbarri, Xabier  | 9. Irasuegi, Beñat        |
| 3. Arriola, Iratxe    | 10. Lurrebaso, Iñaki      |
| 4. Bengoetxea, Xabier | 11. Larrarte, Joanmari    |
| 5. Esnaola, Imanol    | 12. Olaizola, Itxaso      |
| 6. Etxandi, Argitxu   | 13. Telleria, Koldo       |
| 7. Garmendia, Joseba  | 14. Txintxurreta, Iurdana |

Metodoaren garapenari dagokionez, bi galdera txanda egin ziren. Galdetegi bakoitzaren ondotik, partaide guztiei emaitza eta talde-eragilearen ekarpenak biltzen zituen itzulera-dokumentua bidali zitzaien. Bukatzeko, itxiera-saio bat egin zen, azken ekarpenak aurrez aurre eztabaidatu eta dokumentua ixteko.

Lehen galdetegian arnasguneen garapenari jasangarriari lotutako arazoengatik inguruko galdera irekiak izan ziren nagusi. Erantzunak aztertuta, aurrera begirako erronka nagusiak definitzera jo zuen talde-eragileak. Horrela, bigarren galdetegian, erronka proposamenen inguruko galdera itxietara eta esku-hartze proposamenak jasotzera jo genuen. Ekarpenak bateratuta eta talde-eragiletik esku-hartze proposamenak eginda, itxiera-saioa egin eta dokumentuaren azken egokitzapenak onartu ziren.

## EMAITZA. ARNASGUNEEN GARAPEN JASANGARRIRAKO OINARRIAK:

Emaitzak xehe azaltzen hasi aurretik, dakartzagun hona adituen ekarpenetan jasotako zenbait ideia, gaiaren konplexutasuna argi eta zehatz kokatzeko interesgarriak direlakoan:

*Garapen ereduak hizkuntza gutxiagotuen garapenean duten eragina estua eta konplexua da. Ez dago garapen jasangarririk hizkuntza garapen jasangarririk ez bada. Arnasguneetako garapen ereduak hizkuntzaren garapena esplizituki eta berariaz barneratu beharko luke.*


*Begirada holistikoa eta zehar-lerrotasuna beharrezko dira. Etxebizitza eta garraio ereduak, eredu ekologikoen, demografia aldaketek eta etorkinekiko harrerak, kultur sorkuntzak eta kontsumoak, ekonomia ereduak... eragin nabarmena dute euskararen erabileran.*

*Hemen hainbat aldagai, bakoitza bere aldetik, aipatuko bada ere, begi-bistakoa da eragina multifaktoriala dela. Elkar elikatzen dute. Horregatik, ikuspegi ahalik eta sistemikoen jarraitzea beharko da, irtenbideak proposatzean.*

## ERRONKAK

Proposamena osatzeko arazo azterketatik abiatu gara. Horrela, arnasguneen garapenari begira mahai gaineratu diren arazo edo eragozpen guztiak aztertuta, aurrera begira esku artean ditugun erronkak definitu dira. Horretarako, arazoak gaika multzokatu ditugu (demolinguistika, sozioekonomia, soziokultura, zerbitzuak...) eta gai horietako bakoitza zein norabideetan garatu beharko litzatekeen identifikatu dugu arazoaren nondik norakoen arabera. Alegia, gai horien garapen egokia definitzeko, norabide egoki hori ezaugarritu egin dugu. Hortaz, erronka bakoitza bi aldagai horiek zedarrizten dute: gaiak eta norabideak.

Erronka hauek, hain zuzen ere, hasieran aurkeztu genuen garapen jasangarrirako lan-marko orokorraren edo eskemaren garapen eta zehaztapen gisa ulertzen ditugu. Horrela, erronka horiek ere garapenaren ikuspegiaren kokatu ditugu. Hona hemen esandakoaren irudikapen grafikoa:



Aurrez esandakoaren arabera egoki kokatzeko, jarraian xehetzen dizkizuegu erronkak, gaia eta ezaugarritzea edo norabidea bereiziz:

ERRONKA	GAIA	EZAUGARRITZEA/NORABIDEA
Garapen demolinguistiko jasangarri eta orekatua	Demolinguistika	Garapen jasangarri eta orekatua
Garapen sozioekonomiko sistemiko eta endogenoa	Sozioekonomia	Garapen sistemiko eta endogenoa
Tokiko Oinarrizko Zerbitzuen garapena	Oinarrizko zerbitzuak	Garapen funtzionala
Hizkuntza komunitatean ardaztutako garapen soziokulturala	Soziokultura	Hizkuntza komunitatean oinarritutako garapena
Balio aurrerakoi eta komunitarioetan oinarritutako nortasunaren garapena	Nortasuna	Balio aurrerakoi eta komunitarioetan oinarritutako garapena
Arnasguneak saretzea (korridoreak) eta hedapena garatu	Korridoreak, saretzea	Arnasguneen korridoreetan oinarritutako garapena
Hizkuntza komunitatea ardatz duten politika publikoen garapena	Politika publikoak (zeharkakoa)	Hizkuntza komunitatea ardatz izanda garatzea

## 1. Garapen demolinguistiko jasangarri eta orekatua

---

Biztanleria gorde, gaztea batez ere, eta hizkuntza araua erreproduzitzeko gaitasuna duen biztanleria izatea da erronka honen funtsa. Alegia, arnasmuneak ez daitezela jendez hustu eta horrekin batera, bertako hizkuntza-araua barneratu duten pertsonak gordetzea. Izan ere, biztanleria horri eutsi ezean, arau hori geroratuko dutenak galduko baitira. Erronka honen jatorrian dauden arazoak hiru jatorri ditu:

- **Emigrazioa.** Bertakoak, batik bat gazteak, kanpora joatea.
- **Immigrazioa.** Kanpotik datozenak, sarritan, erdaldunak dira. Horien kopuruak eta nolakotasunak eragina izan dezake, zahartzen eta mehartzten doan komunitate horretan.
- **Jaiotze-tasa baxua.** Ehan orokorra da, eta baita arnasmuneetan ere. Ez dago belaunaldien ordezkapen askirik, herriak zahartzen ari dira. Gizarte hori ez da berritzen modu jasangarri batean. Urritze eta mehartztea.

Garapen demolinguistikoak, noski, **ingurumenaren garapen jasangarriarekin ere orekan** egon behar duela ulertzen dugu. Horrela, biak hala biak urbanizazioarekin eta etxegintzarekin duten lotura aintzat hartuta, **urbanizazio eta etxegintza ereduak garapen demolinguistiko jasangarri eta orekatuaren zerbitzura** egon beharko du

Horrek, urbanizazio eta etxegintza proiektuak **dimentsioan eta denboran** garapen horren beharretara egokitzea ekarri beharko luke.

## 2. Garapen sozioekonomiko sistemiko eta endogenoa

---

Herrian edo gertuko inguruan bizimodua ateratzeko bitartekoak behar ditu arnasmuneko biztanleak. Bai eta herriak berak oinarrizko zerbitzu eta azpiegiturak kudeatzeko bitartekoak ere. Horrek, tokiko jardun ekonomikoa zehaztu eta garatu beharra dakar. Eskualde unitate funtzional nagusi gisa hartuta, baina eskala anitzeko (auzo, herri, eskualdea, herrialde...) ikuspegia izanda. Bai eta herriaren garapenerako definitu beharreko **eredu-sozioekonomikoak bertako herritarren behar eta kompetentziak zein inguruak eskaini eta jasan ditzakeen aukera eta jardun dinamikak (industria, ikerketa, nekazaritza, energia berriztagarriak...) ere aintzat hartzea.** Horrela, ingurunearen eta ingurumenaren ikuspegitik tokian tokiko lurralde kudeaketa modu endogenoak bultzatuz eta horri lotuz tokiko lurraldearen zaintza.

Alegia, definitu beharko litzateke, **zein sektore-ekonomiko bultzatuko** den lekuan leku arnasmuneeen garapena bultzatzeko. Horrela, funtsezkoa da **inplantazio berriek** bertako herritarren enplegua hobetzea. Baina, horretaz gain, egitasmoak ezin du mugatu jarduerak erakartzera, **bertako biztanleria aktiboa kontratatzeko** modukoa izan beharko luke, eta horren bitartez, egonkortasun soziodemografikoa zaindu.

Bizitza- eta lurralde-eredu zonifikatuek lana, bizitza eta aisia lurraldean barrena barreiatu dituzte. Horrek arnasmuneetako tokiko garapena asko mugatu du, lurralde mailako antolaketa batean asetzen direlarik bizi beharrak, eta ez tokian bertan. Beraz, garapen sozioekonomiko endogenoa lantzeaz ari gara, bai eta ikuspegi sistemikoa izan beharraz. Izan ere, ulertzen baitugu, arnasmune askotan lantokien inplantazioak dituen zailtasunak aintzat hartuta, bertako herritarrek zein lantokitara joan beharko duten aintzat hartu eta horietan **hizkuntza irizpide edo arau egokiak** eman daitezzen ere lan egin beharko dela.



### 3. Tokiko Oinarrizko Zerbitzuen garapena

---

Zerbitzuen eskuragarritasunak bi alderdi zehaztuta eragin nabarmena dute. Batetik, herriko harreman-sareetan. Ezin dugu baztertu herri gehienetan zerbitzu horiek (eskola, denda, taberna...) izan ohi direla jendearen **sozializatorako espazioak**. Sozializazio hori euskaraz eta euskararen erabileraren aldeko arau soziala transmitituz eman dadin, beraz, berebiziko funtzioak betetzen dute zerbitzu horiek.

Horrekin batera, aurreko erronkekin lotuta, **zerbitzuen hurbiltasunarekin erraztu** ala zaildu egin daiteke bertako **biztanleriaren egonkortasuna**.

Hortaz, **zerbitzuak euskararen erabileraren aldeko arau soziala transmititzeko** horien garapen bermatu beharko da. Arnasguneetan **bertan lehentasunez ezarri beharreko oinarrizko zerbitzuak** definituz (hezkuntza, zaintza, aisialdia...) eta horrekin batera, oinarrizko zerbitzuen gertutasuna eta irisgarritasuna bermatzeko inguru hurbilean **herrian bertan jaso ezin dituzten zerbitzuen euskarazko sare funtzionalak** garatuz.

Horrek, ezinbestean, lotura zuzena du mugikortasunarekin. Mugikortasunak bi aldagai nagusi ditu: **garraioa eta azpiegiturak**. Alegia, garraio-sistema publikoak zein eremu (auzo, herri,...) lotzen dituen, batetik. Eta, garraioari begira eraturako dagoen azpiegitura sareak (oinezkoentzat, bizikletentzat, trenarentzat, kotxeentzat, autobusentzat) ere zein lotura egiten dituen, bestetik. Horrek guztiak, noski, arnasguneetako joan-etorrien nondik norakoak baldintzatuko ditu, eremu batzuetarako irisgarritasuna erraztuz eta besteena zailduz.

Horregatik diogu, arnasguneen kasuan, euren garapen jasangarrirako, beharrezkoa dela **arnasguneen arteko loturak eta saretzea oinarri izango dituen mugikortasunaren garapena**. Bai arnasgune geografikoen artean, baina, **baita arnasgune funtzionalei** begira ere. Horrela, **herrian bertan eskuragarri ez dauden zerbitzuen bila** hiriburura jotzea bultzatu beharrean, **eskualde barruko edo inguruko herrien arteko mugikortasuna erraztuz**. Beraz, bai garraio publikoaren ikuspegitik, bai eta azpiegituren ikuspegitik, arnasguneen arteko hartu-emana eta jendea arnasguneen artean eroso mugituarazteko bitartekoak eskaini behar dira.

### 4. Hizkuntza komunitatean ardaztutako garapen soziokulturala

---

**Praxi komunitarioa egonkorra** izatea gakoa da. Horretarako, **kultur sormen intentsibo eta diziplina anitzekoa** bultzatu behar da, izan artean, izan prozesu sozialetan (enpresen edo proiektu sozialen sorrera). Horrela, arnasguneetako biztanleak hiztun osoak, jasoak eta kontzienteak izateko eta hizkuntza komunitatearen kontzientzia lantzeko ezinbestekoa da euskararekin batera euskal **kulturaren garapena eta transmisioa** eremu horietan ematea. Noski, transmisio hori arnasguneetara kanpotik bizitzera etorritako herritarrei bermatzeko harrera prozesuak egoki (etorri berrien jatorri eta beharretara egokitua) garatzea ere beharrezkoa izango da, bai eta behar den kasuetan euren kultura euskaratik eta euskaraz ezagutu eta lantzea, beraien inklusioa errazteko.

Horrekin batera, euskal kulturaren edo euskal munduko **erreferenteak** bultzatu behar dira. Egungo mundu globalizatuan kanpoko erreferenteak inoiz baino eskuragarriago ditugunez,

euskal kulturari lotutako erreferenteak sortu eta ikusgarri egiteko ahalegin bereziak egin behar dira hezkuntzaren eta komunikabideen esparruetatik.

Hortaz, **euskal kulturaren sormena, transmisioa eta ikusgarritasuna bideratzea** eta arnaguneak horrekin blaitzea ezinbestekoa da. Horretarako, arnaguneetan adin tarte guztientzako **euskarazko kultur eskaintza egokia** garatuz.

## 5. Balio aurrerakoi eta komunitarioetan oinarritutako nortasunaren garapena

---

Globalizazioak eta egungo gizarte-ereduak bizi-maila guztietan eragin digu, behar eta imajinario berriak sortuz. Horrek, herri-giroan eta harreman-sareetan aldaketak eragin ditu. Bakoitza berean barnebiduago dago. Bizimolde individualistagoa bai eta kontsumoaren kultura nagusitzen ari dira. Horrek, hiztunen osaera linguistikoan ere aldaketak eragin ditu.

Hiztunak bere **hizkuntzaz eta hizkuntza-komunitateaz dituen iritziak, ikusmoldeak eta jarrerak**, modu nabarian **eragiten** dute **hiztun horren jokaeran eta hizkuntza horren beraren erabileran**. Hizkuntza **ohiturak ezartzerakoan** ere (auzotar berriekin) ezinbestekoa da alde zuzenetik bertako identitatearen gaineko kontzientzia indartsua izatea herriarrek eta etorri berriak modu inplizituan sentitzea. Horregatik, **balio eta praxi aurrerakoietan, komunitatean eta noski euskaltasunaren paradigmaren errotutako identitatea** garatu behar da arnaguneetan. Hori bideratuko duen eragile, aktore edota instituzioen sistema osatuz.

Askotan esan izan den bezala, hizkuntza-gatazka, beste hainbat esparrutako gatazkekin (generoa, soziala...) gertatzen den bezalatsu, **botere-gatazka** da, funtsean. Horregatik, hizkuntza normalizaziorako ezinbestekoa da **balio aurrerakoiak bere egingo dituen eta ahaldunduko den euskal identitatea** etengabe sortu eta birsortzea, edo elikatzea. **Euskaraz bizitzea, ongi bizitzearekin lotu** behar da.

Identitate horrek gainera, ahaldunduko bada, komunitatea sortu eta komunitatea bere egin beharko du. Konpetentzia hauspotzen duen egungo gizarte-ereduaren parean, kooperazioari balioa emanez edo gurean ezagunagoa izan den auzolana errotuz. Kapital sozial hori hiztunen aktibazioaren erabiliz, identitatea, euskalduntasunetik harago, euskaltzaletasunera joan dadin eta hiztunen aktibazioak eraldaketa soziala bultzatu dezan.

## 6. Arnaguneak saretzea (korridoreak) eta hedapena garatu

---

Argi dago, arnaguneak ez daudela ingurutik isolatuta. Are gehiago, inguruari gero eta konektatuagoak daude eta inguruaren aldetik geroz eta eragin gehiago jasaten dute. Hori horrela, garrantzitsua da **arnaguneen saretzea eta hedapena lantzea**. Erronka hau korridore ekologikoen ikuspegiarekin lotzen da.

Arnaguneen garapenak ere eskatzen du arnagune desberdinen arteko loturak lantzea.

Horretarako, **arnaguneak, euren arteko korridoreak, leuntze-ermuak (buffer) eta garapen eremuak zehaztuz**. Eremu horietan, noski, lurguneak ez eze, arnagune soziofuntzionalak ere korridore horiek osatzeko aintzat hartu beharko dira. Horrela, eremu horien **guztien izendapena eta babes legala** garatu behar da. Arnaguneek inguruan dituzten herri eta eskualde-buruek

trataera berezia jasoko lukete horrela. Arnasguneen hedapenerako aukerak areagotuz eta denboran zehar leuntze-eremuak eta korridoreek espazio berriak irabaziz.

Horrek batera, **sare hori osatzen duten eremuen arteko lotura organikoa** ere landu beharko da. Arazoen aurrean hausnarketa kolektiboa egiteko eta erantzun globalagoak bilatzea, estrategia handiago eta komun batetik.

## 7. Euskara ardatz duten politika publikoen garapena

---

Behin eta berriz ageri den bezala, arnaseguneen garapenaren elkar lotutako eta elkar gurutzatzen diren aldagai desberdin askok du eragina. Horri erantzuteko, beraz, hizkuntza-politikaren **zeharkakotasuna** ezinbestekoa da. Arlo edo **sail guztietako politika publikoak** blaitu behar ditu euskararen normalizazioak, bai eta **administrazioko maila guztiak** (udala, eskualdea, herrialde, erkidegoa).

Euskararen normalizazioa ardatz duten politika publikoek, berriz, ezinbestean, aitortu behar diete **arnasguneei** euskararen normalizaziorako duten **balio estrategikoa**. Horrek eragina izan beharko luke, noski, arnaseguneetan eragiten duten ezin politikan, bai eta arnaseguneen garapenerako bideratuko **baliabideetan**, arnasegune askotan udalek baliabide gutxi izaten baitute.

Bide horretan, arnaseguneentzat eta euskararen normalizaziorako politika publiko egokiak garatu behar dira. Bai, lege garapenari dagokionez, bai eta baliabideen bidez garatu beharreko sustapenari dagokionez ere. Horrek, **marko legal egokia** garatzea eskatzen du. Egun, judizializatua dagoen eremua izaki, arnaseguneen garapenak oinarri eta babes legal sendoak eta egokiak izan ditzan. Horrela, arnasegune diren eremuetan, **lurraldetasun printzipioa** aplikatzera joaz.

### ESKU-HARTZE PROPOSAMENAK

Erronka horiek garatzeko, esku-hartze proposamenen inguruan jasotako ekarpenak aztertu ondoren, lehendik eginiko proposamenak berraztertu, bateratu, findu... eta jasotako iritziak aintzat hartuta, talde-eragiletik esku-hartze proposamen zehatz batzuetan arreta jartzera jo dugu. Proposamen horiek gai honi jarraipena emateko lanerako ildo gisa iruditu nahi izan ditugu. Ariketa horrek, noski, zenbait proposamen kanpoan uztea eta gutxi batzuei lekua egitea eskatu digu. Hamaika proposamen egin ditugu eta beste hamaika kanpoan utzi behar izan ditugu. Baina uste dugu fokoa fintzea ere beharrezkoa dela eraginkortasunean irabaziko badugu eta egingarria izango den bide bat zabalduko bada.

Proposamenak egiterakoan aintzat hartu ditugu ondorengo hiru irizpideak: eragina, egingarritasuna eta urgentzia. Ez hori bakarrik, ordea. Eginiko proposamenak, ondorengo urteei begira, arnaseguneen garapen jasagarriaren ikuspegitik zabaldu behar liratekeen lan-ildo proposamen gisa ulertu behar direla deritzogu. Proposatutako erronkak aurrera eramateko abian jarri beharreko egitasmo zehatzak edota dekalogoak. Eztabaidagarri eta eztabaidarako zabaldu dugun proposamena duzue, beraz, ondorengoak. Baina, baita lanerako bide-orria eta ondorengo urtetarako abiapuntu operatiboa ere eskaini nahi duena.

ERRONKA	ESKU-HARTZE PROPOSAMENA
Garapen demolinguistiko jasangarri eta orekatua	1. Lurralde Antolaketarako Gidallerroetan, udalerrri bakoitzak duen gehienezko hazkundera (etxebizitza berri kopurua), arnaguneen kasuan, hazkunde endogenoaren beharretara egokitu
	2. Gazteei bideratutako ekintza plana (besteak beste etxebizitza eta laguntza politikak) diseinatzea, herrian jarraitzeko erreztasunak izan ditzaten
Garapen sozioekonomiko sistemiko eta endogenoa	3. Arnaguneetako herritarren behar eta konpetentziak zein inguruak eskaini eta jasan ditzakeen aukera eta jardun dinamikak (ikerketak, nekazaritza, energia berriztagarriak...) ere aintzat hartuta, tokiko garapen sozioekonomikorako plana diseinatzea.
	4. Arnaguneetako eta arnaguneen eskualde-buruetako lantoki berrien inplantazioei hizkuntza irizpideak ezarriko dizkien araudia garatu
	5. Herrian edota eskualdean ekonomiko sozial eta eraldatzailean oinarritutako proiektu komunitarioak eta ekonomikoak babestu eta berriak sortzea sustatu
Eskualde mailako Oinarrizko Zerbitzuen garapena	6. Arnaguneen garapenerako oinarrizko zerbitzuak katalogatu (hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak...) eta herrian bertan zein eskualde mailan eskaintza integrala osatzeko plana garatu, horretarako egon litezkeen baldintzak (ume kopurua, ratioak...) malgutuz
Hizkuntza komunitatean ardaztutako garapen soziokulturala	7. Herri-giro bizia bermatzeko ekipamendu eta elkarteak eratu, lagundu, saretu eta estrategikoki kokatu daitezzen neurriak hartu (hirigintza-plangintza)
Balio aurrerakoi eta komunitarioetan oinarritutako nortasunaren garapena	8. Hizkuntza jarrerak eta praxi egokiak (ahalduntzea, erresilientzia, memoria soziolinguistikoa...) lantzeko eskolaz kanpo eta eskolarako proiektu Curricularra landu
	9. Kanpotik arnaguneetara bizitzera etorritako herritarrei bertako komunitateko kultura eta praxiak transmititu eta inklusioa errazteko, harrera-programa egokiak (etorri berrien jatorri eta beharretara egokituak) diseinatu eta inplementatu.
Arnaguneak saretzea (korridoreak) eta hedapena garatu	10. Arnaguneen (lurgune eta soziofuntzionalak) saretzea (korridoreak) eta hedapena garatzeko lurralde plan sektoriala (LPS) diseinatzea
	11. Arnaguneen (lurgune eta soziofuntzionalak) saretzea (korridoreak) garatzeko mugikortasun planak definitu
Hizkuntza komunitatean ardatz duten politika publikoen garapena	12. Arnaguneen (lurguneak eta funtzionalak) lege kategorizazio eta izendapena landu. Horren arabera, eremu horietarako politika publikoetako baldintza bereziak ezarri

